

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK.

### GOI MAILAREN / MAILA AURRERATUAREN ZIURTAGIRIA - B 2 IKASLE LIBREAK

#### AZTERKETAREN HELBURUA

Azterketaren bidez ikasleak komunikatzeko duen gaitasun orokorra eta hizkuntza erabiltzeko duen gaitasuna ebaluatuko dira.

Azterketaren bidez, ohiko egoeratan edota egoera berezietan, informazioa jasotzean nahiz ematean, ikaslea hizkuntza **erraz eta eraginkortasunez** erabiltzeko gai den ebaluatuko da. Aztertuko da ere berean **kontzeptutan nahiz hizkuntzan konplexuak diren ahozko eta idatzizko testuak** ulertzeko, ekoizteko, eta lantzeko gai den. Azterketako testuak **hizkuntza estandarrean** idatzitakoak izango dira, **errepertorio lexiko zabala eta ez oso idiomatikoa erabiltzen dutenak**. Testu horiek, halaber, **gai orokorrei, gaur egungo gaiei, gai zehatzei edo gai abstraktuei** buruzkoak izan daitezke, eta **espezializazio handikoak ez diren gai teknikoak** tratatzen dituztenak.

Goi Mailako / Maila Aurreratuko azterketaren maila finkatzeko, Europako Kontseiluaren B 2 mailaren berezko gaitasunak hartuko dira oinarri, hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan definitu bezala.

Informazio gehiago: Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntza Irakaskuntza Berezien Goi Mailaren / Maila Aurreratuaren Curriculum: [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net)

#### AZTERKETAREN AZALPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Azterketak lau proba edo atal izango ditu: irakurritakoaren ulermena, entzundakoaren ulermena, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena.
- Azterketaren iraupena: 3 ordu eta 20 minutu. Irakurritakoaren ulermena, entzundakoaren ulermena eta idatzizko adierazpenaren probak egiteko, azterketariak 3 ordu izango ditu. Hiru probak azterketa-saio bakar batean egingo dira. Ikasleak, bestetik, 20 minutu izango ditu ahozko adierazpenaren azterketa egiteko. Azken azterketa hori beste egun batean egingo da.

- Goi Mailaren / Maila Aurreratuaren Ziurtagiria eskuratzeko, azterketariak atal edo azterketa guztiak gainditu beharko ditu. Gutxieneko puntu-kopurua: azterketariak puntu guztien 2/3 lortu behar du gutxienez (hots, puntuen %66,6). Hartara, idatzizko azterketan (irakurritakoaren ulermena, entzundakoaren ulermena eta idatzizko adierazpena neurtzeko proban) jokoan diren 90 puntuetatik 60 lortu behar ditu. Ahozko azterketan, aldiz, 30 puntutik 20 lortu behar ditu.
- Nolanahi ere, ikasleak idatzizko azterketaren ataletako batean 20 puntutik (%66,6tik) beherako puntuazioa lortu badu, puntuazio hori konpentsatzeko aukera izango du. Horretarako, azterketariak idatzizko azterketaren beste bi atalak gaindituak izan behar ditu, eta gainditu ez duen atal horretan gutxienez 15 puntu (%50) izan.
- Ahozko atala ezin izango da konpentsatu. Ahozko atalean 20 puntu (%66,6) lortu beharko dira gutxienez.

IRAKURRITAKOAREN ULERMENA			
EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3/4	30 puntu - %25	20 puntu	60 minutu
Helburuak		Testu-mota posibleak	Ariketa-motak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Gaurkotasuneko gaiei buruzko iritzi-artikuluetakoa ikuspuntuak identifikatzea.</li> <li>Argudio-diskurtsoetako tesia, argudioak eta ondorioak hautematea, eta diskurtsoaren eskema identifikatzea.</li> <li>Argibide nahiz arau luze eta konplexuak ulertzea.</li> <li>Testu luzeetan informazio zehatza aurkitzea.</li> <li>Oso espezializatuak ez diren albiste, artikulu, txosten eta iragarkietako eduki nahiz puntu garrantzitsuak azkar identifikatzea.</li> <li>Testuak zehatz-mehatz ulertzea, gaitasun lexikoa eta gramatikala aplikatuz.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Gutun eta mezu pertsonalak (mezu elektronikoak, faxa, posta arrunta) honako hauek helarazteko: informazioa, interesak, beharrak, bizipenak, iritziak, iruzkinak, erreakzioak eta sentimenduak.</li> <li>Gutun formal pertsonalak, akademikoak edo profesionalak (posta arrunta, mezu elektronikoak eta faxa) informazioa eman edo eskatzeko, laguntza edo zerbitzuak eskatzeko, arazoak azaltzeko, erreklamazioak egiteko, edo eskerrak emateko.</li> <li>Eztabaida-leku birtualetan gai ezagunei buruzko mezuak.</li> <li>Aisialdiko gidak eta katalogoak</li> <li>Webguneak, blogak edo antzekoak.</li> <li>Liburuxkak eta erabilera-orriak.</li> <li>Jarraibideak eta arauak.</li> <li>Lan-iragarkiak.</li> <li>Iragarkiak.</li> <li>Txostenak.</li> <li>Prentsa: albisteak, dibulgazio-artikuluak, erreportajeak, elkarrizketak, editorialak, iritzi-artikuluak.</li> <li>Administrazioko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>erantzuna: aukera anitzekoak.</li> <li>egia/gezurra:</li> <li>informazio-transferentzia</li> <li>testuak ordenatzekoak</li> <li>erlazionatzea: (egoerak edo epigrafeak testuekin lotzea / esaldiak zer testutakoak diren edo esaldiek zer testurekin lotura duten esatea)</li> <li>hutsuneak betetzea: (hutsuneak esaldiekin betetzea/ hitz-zerrenda batean bildutako osagaiekin hutsuneak bete eta zenbakidun gelaxka batean jartzea / hutsuneetan aukera zuzena jarriz testua osatzea / hutsuneetan hitz bakarra jarriz testua osatzea).</li> <li>erantzun bakarreko galdera irekiak</li> </ul>

	testu arruntak. <ul style="list-style-type: none"><li>• Biografiak</li><li>• Kontakizunak, ipuinak.</li></ul>	
--	---	--

ENTZUNDAKOAREN ULERMENA			
EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2 edo 3	30 puntu - %25	20 puntu	40 minutu
Helburuak		Testu-mota posibleak	Ariketa-motak
<ul style="list-style-type: none"> <li>eztabaida formalak nahiz lagunartekoak konprenitzea, solaskide bakoitzaren iritziak xehetasunez ulertuz, bai eta iritzi horiek funtsatzen dituzten argudioak eta komunikazio-asmoak ere.</li> <li>aholkuak, argibideak eta informazio zehatza ulertzea, baita auzi orokorrei buruzkoak edo apur bat espezializatuak diren aholkuak ulertzea ere.</li> <li>keinuen, isiluneen, etenaldien, etenduren, intonazioaren eta tonuaren komunikazio-asmoez ohartzea.</li> <li>gizartean entzun ohi diren eta izaera akademiko zein profesionalekoak diren hitzaldiak, txostenak, hizketaldiak, azalpenak eta kontaktak zailtasunik gabe ulertzea, argudioen ildoak eta hizkera konplexuak badira ere.</li> <li>konferentzia eta aurkezpenetan, ideia nagusiei eta informazio garrantzitsuari buruzko ohar zehatzak hartzea.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai pertsonal, orokor, sozial, akademiko, profesional eta aisialdiko gai ugari buruzko solasaldi informalak. Inguruko zarata egon ohi da, eta testuetan, informazioa, bizipenak, iruzkinak nahiz ikuspuntuak trukutzen dira.</li> <li>Telefono-bidezko elkarrizketa formal edo informalak, eta bideokonferentziak.</li> <li>Kultura- edo aktualitateko gai ezagunei buruzko iruzkinak eta iritziak.</li> <li>Elkarrizketak.</li> <li>Gai orokorrei, gai teknikoei eta espezializazio ukitua duten gaiei buruzko mahai-inguruak eta debateak, hizkuntza estandarrean.</li> <li>Jarraibide, arau, ohar eta argibide zehatzak.</li> <li>Testuinguruan kokatutako azalpen, aurkezpen, deskribapen eta kontaktak.</li> <li>Aski ezagunak diren gaiei buruzko hitzaldi eta konferentziak.</li> <li>Elkarrizketa dramatizatuak, hizkuntza estandarrean eginikoak (telesailak, pelikulak, irratsaioak).</li> <li>Erantzungailuan grabatutako jarraibideak eta mezuak.</li> <li>Iragarkiak (irratia, telebista, etab.).</li> <li>Gaur egungo gertakariak eta gaiak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>erantzuna: aukera anitzekoak.</li> <li>egia/gezurra</li> <li>informazio-transferentzia</li> <li>erlazionatzea</li> <li>erantzun bakarreko irekiak</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"><li>• Gai orokorreari buruzko dokumentalak eta erreportajeak (telebista edo bideoak).</li></ul>	
--	---	--

<b>IDATZIZKO ADIERAZPENA</b>			
EGIN BEHARREKO ATAZAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENeko PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	30 puntu (10 + 20) %25	20 puntu	80 minutu
Helburuak	Testu-mota posibleak	Ariketa-motak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizartean ohikoak diren testuak idaztea, egoera eta solaskide jakin bati egokiturikoak.</li> <li>• Zerbitzuekin loturiko pertsonen gutun, mezu edo oharak idaztea, informazioa emanaz edo berehalako azalpenak eskatuz, eta garrantzizkotzat jotzen dituen alderdiak nabarmenduz.</li> <li>• Gutun formalak edo agiri administratiboak idaztea, zerbitzuak eskatu edo eskertzeko, erreklamazioak egiteko, edo datuak zuzentzeko.</li> <li>• Gai ugari buruzko testu argi eta zehatzak idaztea, hainbat iturritako informazioa eta argudioak laburtu eta ebaluatuz.</li> <li>• Arazo batek izan ditzakeen konponbideak alderatu eta balioestea.</li> <li>• Argibide xeheak idaztea.</li> <li>• Lan-eskabideak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizartean ohikoak diren testuak, formalak nahiz lagunartekoak.</li> <li>• Gutun eta mezu pertsonalak (mezu elektronikoak, faxa, posta arrunta) honako hauek trukatzeko: informazioa, interesak, beharrak, bizipenak, iritziak, iruzkinak, erreakzioak eta sentimenduak.</li> <li>• Gutun formal pertsonalak, akademikoak edo profesionalak, informazioa eman edo eskatzeko, laguntza edo zerbitzuak eskatzeko, arazoak azaltzeko, erreklamazioak egiteko, edo eskerrak emateko.</li> <li>• Agiri administratiboak (eskabideak, erreklamazioak, datuen zuzenketak, eta abar).</li> <li>• Iritzi- eta argudio-testuak.</li> <li>• Txostenak (egoerak aurkeztea, aukeren abantailak eta desabantailak azaltzea, eta abar).</li> <li>• Bizipenak, gertakariak, istorioak, benetako gertakariak eta imajinatutakoak kontatzea.</li> <li>• Pertsonak, gauzak, jarduerak, zerbitzuak eta</li> </ul>	<p><b>1. proba: idazte ariketa bideratua.</b> Hauetako bat izan daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ testu bat edo testu baten hainbat zati berridaztea, aldatzea edo birformulatzea, aurrez emandako hainbat elementu lexiko nahiz gramatikal errespetatuz.</li> <li>▪ testu bat zuzentzea</li> <li>▪ aurrez emandako informazioa edo zenbait elementu (hasiera, amaiera, eta abar) oinarri harturik testu bat sortzea edo lantzea.</li> </ul>	

<p>eta erreklamazioak idaztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ikuspuntu jakinen aldeko edo kontrako argudio-saiakera eta -txostenak idaztea, aukeren abantailak eta desabantailak deskribatuz, alderdi esanguratsuak nabarmenduz, eta laguntza moduan balioko duten xehetasun esanguratsuak emanez.</li> <li>Testu egituratuak egitea, benetako bizipenak eta imajinatutakoak argi eta zehatz azalduz, ideien arteko lotura aditzera emanez, eta ezarritako arauak errespetatuz.</li> </ul>	<p>lekuak deskribatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Planak eta proiektuak.</li> <li>Jarraibideak eta arauak</li> </ul>	<p><b>2. proba</b></p> <p>Testu, egoera edo hasierako proposamen bati erantzunez, azterketariak honako testuetako bat idatzi beharko du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Norberaren interesekoa den gai orokor bati buruzko irizitua (zuzendariarentzako gutuna, bloga, eta abar), ikuspuntua zehatz azalduz eta, beharrezkoa balitz, adibideak emanez.</li> <li>gertakari ezagunei buruzko txostena prestatzea, egoera zehaztuz, hartutako neurriak justifikatuz eta giltza diren alderdiak nabarmenduz.</li> <li>alderdi, lan edo plan bati buruzko argibide zehatzak idaztea.</li> <li>txosten argudioduna, ikuspuntu jakin baten alde edo kontra, non hainbat aukeraren abantailak eta desabantailak deskribatzen diren.</li> </ul> <p>Ariketa horretan, gerta daitezkeen <b>bi egoera, arazo edo gai</b> proposatuko zaizkio azterketariari. Ikasleak bietako bat aukeratu beharko du ariketa gauzatzeko.</p> <p><b>Adi:</b> idatzitako testuan, gutxienez, ariketan zehazturiko lau alderdiak landu beharko dira.</p> <p><b>220 hitz gutxienez</b></p>
---	---	---

<b>AHOZKO ADIERAZPENA</b>			
EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENeko PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	30 puntu (15 +15) %25	20 puntu	20 minutu
Helburuak		Testu-mota posibleak	Ariketa-motak
<p><b>A. AZALPENA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gai orokorre bidezko ideia eta iritziak argi, seguru eta erritmo erregularrean azaltzea, entzuleari tentsiorik ez eragiteko moduan.</li> <li>• Gai ugariri buruzko deskribapen eta aurkezpen luze, argi eta zehatzak naturaltasunez egitea. Ikasleak bere ideiak azaldu eta defendatu beharko ditu, alderdi osagarriak zein adibide esanguratsuak txertatuz.</li> <li>• Diskurtsoa egituratzea, datuak malgutasunez lotzea eta koherentziari eustea.</li> <li>• Denbora-, espazio- edo logika-loturak eta ikuspegia argi uztea.</li> <li>• Iritzi, plan eta ekintzen argudio, arrazoibide eta azalpenak garatzea.</li> </ul>		<p>Beste ikasle bati edo batzuei emaniko azalpena.</p>	<p><b>1. proba*:</b> Azalpena.</p> <p>Azterketariak 150-200 hitz inguruko testua edota argazkiak, irudiak nahiz grafiko iruzkinduak jasoko dituzte. Horiek guztiek probarako proposatu den gaiari buruzkoak izango dira. Testu, argazki edota irudiekin batera informazioa emango zaio ikasleari. Azterketariak informazio horretaz balia daitezke ariketa gauzatzeko.</p> <p>Bi ikasleek gai proposatuaren aurrean erreakzionatu beharko dute, <b>batak besteari</b> beren ikuspegiak azaldu, informazioa gehitu, beren iritziak eman.</p> <p><b>Denbora:</b> azterketari bakoitzak 2-3 minutu izango ditu.</p> <p><i>*Administrazioko protokoloa eta ahozko adierazpena neurtzeko probaren prozedura ikusi.</i>  <a href="http://www.eoieuskadi.net/eu/pcertificacion.php?pag=modelos">www.eoieuskadi.net/eu/pcertificacion.php?pag=modelos</a></p>

<p><b>B. INTERAKZIOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gai orokorreari buruzko eztabaida, elkarrizketa eta negoziatioetan modu aktiboan parte hartzea.</li> <li>• Norberaren ideia eta iritziak zehatz aditzera ematea, argudio-ildo konplexuak eta adibideak modu sinesgarrian aurkeztea, eta horrelakoei egoki erantzutea.</li> <li>• Azalpenak eman eta zehaztasun jakin batzuei buruz argibideak eskatzea.</li> <li>• Gai edo arazoak argi azaltzea, dauden aukeren abantailak eta desabantailak ebaluatuz.</li> <li>• Prozedurak nola egin zehatz eta argi deskribatzea.</li> <li>• Gai ugariri buruzko informazioa, argudioak eta aholkuak trukatzea.</li> <li>• Galderak erantzun eta solaskideen zalantzak argitzea.</li> <li>• Solasaldien bilakaeran laguntzea, solaskideekin kooperatuz.</li> <li>• Modu egokian hitza hartzea, hitza ematea, mintzatzea eta amaitzea.</li> <li>• Ulermen hutsuneak adieraztea.</li> <li>• Hizketakideek ulertu dutela ziurtatzea.</li> <li>• Errepikatuz, gauza bera beste era batera esanez edo parafraseatuz, esandakoa ulertu dela egiaztatzea.</li> <li>• Esanahiak argitzea, baliabide ugari erabiliz.</li> <li>• Ulertu dela egiaztatzea, solaskideak esandakoa norberaren hitzak erabiliz errepikatzearen bidez.</li> </ul>	<p>Hizketaldia beste ikasle batekin edo batzuekin.</p>	<p><b>2. proba elkarreragina.</b></p> <p>Azterketariek bata bestearekin hitz egingo dute, informazioa elkarri helarazi eta nor bere iritzia besteari adierazi beharko dio. Arazo baten balizko zioak azalduko dituzte; irtenbideak alderatu; eta hainbat alorren gaineko auziei buruzko informazioa trukatu dute.</p> <p>Azterketariek galderak egin eta galderari erantzun beharko diete; hitza hartu eta solaskideari hitz egiten utzi beharko diote; hau da, solasaldia kontrolatzearekin lotura duten funtzio guztiak gauzatu beharko dituzte.</p> <p>Ikasleek orri bat jasoko dute, zeinean ariketa proposatua eta ariketa hori jorrazteko beharrezkoa den informazio guztia ageriko den.</p> <p><b>Denbora:</b> 8 minutu, gehienez ere.</p> <p><i>*Administrazioko protokoloa eta ahozko adierazpena ebaluatzeko probaren prozedura ikusi.</i>  <a href="http://www.eoieuskadi.net/eu/pcertificacion.php?pag=modelos">www.eoieuskadi.net/eu/pcertificacion.php?pag=modelos</a></p>
---	--	--

**IDATZIZKO ADIERAZPENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

IRIZPIDEAK	EBALUATUKO DA
Egokitasuna: ariketa bete izana eta koherentzia komunikatiboa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• ulergarritasuna.</li> <li>• ariketan eskatutakoa betetzea.</li> <li>• erregistro estandarrari –formalari edo lagunartekoari–, hartzaileari, xedeari eta egoerari egokitzea.</li> <li>• argudioen garapena</li> </ul>
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• informazioaren eta ideien antolakuntza egokia: <ul style="list-style-type: none"> <li>• diskurtsoko lokailuak egoki erabiliz.</li> <li>• erreferentzia-mekanismoen bidez.</li> </ul> </li> <li>• puntuazio-ikurrak.</li> </ul>
Lexikoa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• elementu lexikoen erabilera.</li> <li>• adierazpen idiomatikoen erabilera.</li> <li>• baliabide lexikoen ugaritasuna eta zabaltasuna.</li> </ul>
Zuzentasun morfosintaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• mailako baliabide linguistikoak nahikoa kontrolatzea, ohiko funtzioak betetzeko beste.</li> <li>• egitura sintagmatikoen erabilera.</li> <li>• baliabide gramatikalen ugaritasuna eta zabaltasuna.</li> </ul>
Ortografia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• elementu lexikoen forma.</li> <li>• puntuazio-ikurrak.</li> <li>• doinua.</li> </ul>

### AHOZKO ADIERAZPENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEAK	EBALUATUKO DA
Egokitasuna eta eraginkortasun komunikatiboa	<ul style="list-style-type: none"><li>• ulergarritasuna.</li><li>• ariketa komunikatiboan eskatutakoa betetzea.</li><li>• argudioen garapena.</li></ul>
Kohesioa eta naturaltasuna	<ul style="list-style-type: none"><li>• informazioaren eta ideien antolakuntza, honako hauen bidez:<ul style="list-style-type: none"><li>• diskurtsoko lokailuak egoki erabiliz.</li><li>• erreferentzia-mekanismoak erabiliz.</li></ul></li><li>• etorria, erritmoa eta naturaltasuna mintzoan.</li></ul>
Lexikoa.	<ul style="list-style-type: none"><li>• erabilitako hiztegiaren zehaztasuna.</li><li>• ñabarduren eta mailakatzearen erabilera.</li></ul>
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"><li>• gramatika menderatzea: morfologikoki nahiz sintaktikoki.</li><li>• baliabide gramatikalen ugaritasuna eta zabaltasuna.</li></ul>
Ahoskapena / doinua	<ul style="list-style-type: none"><li>• doinuaren nahiz ahoskapenaren naturaltasuna eta argitasuna.</li></ul>

### ATAZA ETA ARIKETEN ADIBIDE PRAKTIKOAK

Ataza eta ariketen adibideak [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) orrian ikus ditzakezu.

#### AZTERKETA EGITEAREKIN ETA ADMINISTRAZIOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN HAINBAT KONTU

➤ **Azterketa egin ahal izateko betekizunak**  
Goi Mailaren / Maila Aurreratuaren ziurtagiria lortzeko azterketa egin ahal izateko, ikasleak dagokion hizkuntzan matrikulaturik egon beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako batean.

➤ **Deialdiak**

Deialdi bakarra egongo da, eta maiatzean edo ekainean gauzatuko da.

➤ **Ezintasunen bat duten pertsonen azterketa egokitzea**

Probak moldatu ahal izango dira ezintasunen bat duten ikasleek egin ditzaten.

➤ **Azterketa berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea**

Ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezarri dituen Antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiaren arabera, ikasleren batek –ofizial edo libre izaki– ebaluazio-prozesua araudian ezarritakoarekin bat etorri ez dela uste badu, azterketa berrikusteko eskabidea aurkez dezake azterketa egin duen Hizkuntza Eskola Ofizialean. Horretarako, ikasleak eskola bakoitzean ezarritako egutegia errespetatu beharko du.

Dagokion departamentuak azalpenak emango dizkio interesdunari.

### Hainbat aholku

#### Azterketa egin aurretik

- Gogoan izan NAN, pasaporte edo nor zaren egiaztatuko duen beste agiriren bat erakutsi beharko duzula azterketako gelan eskatutakoan.
- Argi izan azterketa zer egunetan, orduetan eta gelatan duzun. Ondo antolatu zaitetz eta garaiz iritsi. Gogoan izan behin azterketa hasita ezin izango dela inor gelara sartu.

#### Proba egitean:

- Ariketak egiteko duzun denbora egoki banatu. Ariketa egiteko denbora aurrez neurtu da, eta nahikoa da zati guztiak egin ahal izateko. Orrazketa orokorra egitea komeni da, egon daitezkeen akatsak zuzentzeko.
- Erraz irakurtzeko moduan idatzi, azterketako zati guztietan. Ziur izan egokitzen jo dituzun erantzun guztiak argi markaturik daudela.
- Zati eta ariketa bakoitzari buruz ematen diren argibideak adi irakurri.
- Lasai egon behar duzu, eta azterketa egiteko ematen diren argibideei adi entzun, batez ere, entzundakoaren ulermenaren zatikoei.

## **INDARREKO ARAUAK**

Goi Mailari / Maila Aurreratuari dagokion Ziurtagiria lortzeko azterketak legean eta administrazioan araturik daude, jarraian aipatuko ditugun lege eta agirietan, hain zuzen:

- **2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa.**
- **abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretua** zeinaren bidez Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoan, maiatzaren 3koan, araturik dauden erregimen bereziko hizkuntza-ikasketen curriculumaren oinarrizko alderdiak ezarri diren.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntza Irakaskuntza Berezien Goi Mailaren / Maila Aurreratuaren curriculum.**
- **EAEko HEOetako Goi Mailari / Maila Aurreratuaren dagokion zertifikazio-probaren zehaztasunak biltzen dituen agiria.**
- **Ebazpena, 2009ko urtarrilaren 29koa, Hezkuntza Sailburuordearena,** zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza eskola ofizialetako proba librean deialdia arautu eta probak nola egingo diren finkatu den.

<http://www.boe.es/boe/dias/2007/01/04/pdfs/A00465-00473.pdf>

[http://cvc.cervantes.es/obref/marco/cvc\\_mer.pdf](http://cvc.cervantes.es/obref/marco/cvc_mer.pdf), 40. orr.: Erreferentziako maila komunak: eskala orokorrak.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dic6/eu\\_2046/c6\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dic6/eu_2046/c6_e.html)

### **Informazioa.**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Hizkuntza Eskola Ofizialen web-orrian.

[www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net)

Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren web-orrian. Web nagusitik ere jo dezakezue bertara.